

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARIDASKO UDALA

Behin betiko onestea udal igerilekuaren zerbitzuagatik ordaindu beharreko prezio publikoa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketa

Udalbatzak, 2020ko irailaren 25eko bilkuran, hasierako onespena eman zion udal igerilekuaren zerbitzuagatik ordaindu beharreko prezio publikoa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari. Horren iragarkia ALHAOn 115 zenbakian (2020ko urriaren 9koa) argitaratuz jendaurrean jarri zen eta, inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onesten da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak 16.4. artikuluan xedatutakoa betetzeko, jendaurrean jartzen da udal igerilekuaren zerbitzuagatik ordaindu beharreko prezio publikoa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketa argitaratuaz.

ERANSKINA

DENBORALDIRAKO ABONAMENDUA	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
Helduen abonamendua	35 €	45 €
14 urtetik beherakoen abonamendua	25 €	35 €

HILABETEKO ABONAMENDUA	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
Helduen abonamendua	25 €	30 €
14 urtetik beherakoen abonamendua	20 €	25 €

EGUNEKO ABONAMENDUA	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
Helduen abonamendua	3 €	4 €
14 urtetik beherakoen abonamendua	1,5 €	2 €

Erabaki horrek administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, egoki jotzen den beste zernahi errekurtsu ere jarri ahal izango da.

Guztiak jakin dezaten eta ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Navaridas, 2020ko azaroaren 24a

Alkatea

MIGUEL ÁNGEL FERNÁNDEZ GONZÁLEZ